Alcalde-Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkateordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea

D. Arcadio Benítez Dávila jauna

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna

D. Jon Iraola Iriondo jauna

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea

D. Josu Cristobal Churruca jauna

D. Gorka Errasti Bernedo jauna

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea

D. Iñaki Penedo Eubieta jauna

Dña. Eva Juez Garmendia andrea

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea

Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta andrea

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea

Eibarko hirian, bi mila eta hamazortziko ekainaren hogeita seian, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a veintiséis de junio de dos mil dieciocho y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/-as anteriormente mencionados/as.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren lehenengo atala irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

1. ATALA

2018ko maiatzaren 2ko bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.

PUNTO 1º

Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 2 de mayo de 2018.

2018ko maiatzaren 2ko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa botazioan jarrita, onartu egin da ondorengo emaitza honekin eta aktatzat utzi.

Baiezko botoak (14): Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV).

Sometido a votación el borrador de Acta correspondiente a la sesión de 2 de mayo de 2018, se aprueba con el siguiente resultado, siendo elevada a acta:

Votos afirmativos (14): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak (6): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones (6): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU). Aguirre Unceta (IRABAZI).

2. ATALA. Agiriak eta posta-bidezkoak.

Alkateak emandako ebazpen hauen berri eman zaio udalbatzari:

"ALKATETZAREN EBAZPENA.

UDAL AURREKONTUKO KREDITU GAIKUNTZAREN BIGARREN ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31.artikuluan ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez 2018. urteko udal aurrekontuaren partidetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak.

HAUXE ERABAKI DUT

Udal aurrekontuaren kreditu-gaikuntzaren Bigarren espedientea onartzea. Hona hemen horren zenbatekoak:

PUNTO 2º Despachos y comunicaciones.

Se da cuenta de las siguientes Resoluciones de Alcaldía:

"RESOLUCION DE ALCALDIA.

SEGUNDO EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2018,

RESUELVO

la aprobación del Segundo expediente de habilitaciones de crédito del Presupuesto Municipal, cifrado en las siguientes

cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arruntak | 13.951,32 |
| | Guztira, gehikuntzen adina | 13.951,32 |

I. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast.ondas.arrunt,eta zerb. | 13.951,32 |
| | Kredituen Gehikuntza, guztira | 13.951,32 |

Eibarren, 2018ko maiatzaren 31n

ALKATEA, Miguel de los Toyos Nazabal."

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Tranferencias corrientes | 13.951,32 |
| | TOTAL igual a los aumentos | 13.951,32 |

I. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gast.b.corrient. y serv. | 13.951,32 |
| | TOTAL Créditos en aumento | 13.951,32 |

Eibar, 31 de mayo de 2018

EL ALCALDE, Miguel de los Toyos Nazabal."

"ALKATETZAREN EBAZPENA

2018KO UDAL AURREKONTUKO KREDITU TRANSFERENTZIEN BIGARREN ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak dioenari jarraituz; eta, ondoren aipatuko diren kontzeptu hauei dagozkien gastuak egiteko beharra eta premia dagoenez, 2018ko Udal Aurrekontuaren partidetan horretarako izendatutako kredituak urri geratu direlako,

"RESOLUCION DE ALCALDIA

SEGUNDO EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIAS DE CREDITO DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2018.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del

Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2018,

HAUXE ERABAKI DUT

Udal Aurrekontuko Kreditu transferentzien Bigarren espedientea onartzea ondoren aipatzen diren zenbatekoetan:

RESUELVO

la aprobación del Segundo Expediente de Transferencias de Créditos del Presupuesto, cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonaleko gastuak | 6.265,48 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 5.000,00 |
| 5 | Kreditu globala eta best.ust. | 105.410,50 |
| Guztira, gehikuntzen adina | | 116.675,98 |

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal. | 6.265,48 |
| 4 | Transferencias corrients. | 5.000,00 |
| 5 | Crédito global y otr.imprev. | 105,410,50 |
| Total igual a los aumentos | | 116.675,98 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast. ondas. arrunt eta zerb. | 116.675,98 |
| Kredituen Gehikuntza, guztira | | 116.675,98 |

II.CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gtos. en B. corrient. y serv. | 116.675,98 |
| Total Créditos en aumento | | 116.675,98 |

Eibar, 2018ko ekainaren 22an

ALKATEA, Miguel de los Toyos Nazabal.”

Udal Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

Mercedes Garate Larrañaga zinegotziaren idatzia.

“EAJ-PNV udal taldeak 2018ko maiatzaren 28an Udal Taldearen koordinatzaile-aldaketa egiteko egin zuen aldaketaren ondorioz, Maria Mercedes Garate Larrañaga andreak onartu zuen kargu hori; hori dela eta, eta Garate andreak hauxe utzi nahi du jasota: onartu egiten duela arduraldi esklusiboa 2018ko ekainaren 4tik aurrera.

Horren berri eman nahi dio Sail horri eta hori jakin beharra daukaten udal sail edo atal guztiei.”

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. ATALA Lan Batzordeetako irizpenak.

Eibar, 22 de junio de 2018

EL ALCALDE, Miguel de los Toyos Nazabal.”

El Pleno se da por enterado.

Escrito de la concejala Doña Mercedes Garate Larrañaga

“Maria Mercedes Garate Larrañaga, como consecuencia de la modificación presentada por el grupo municipal de EAJ-PNV, de fecha 28 de mayo de 2018, de cambio de coordinadora del Grupo Municipal, y habiendo aceptado dicho cargo, quiere hacer constar que acepta la condición de dedicación exclusiva a partir del día 4 de junio de 2018.

Con el fin de ponerlo en conocimiento de ese departamento y de aquellos estamentos municipales en los que fuera necesario.”

El Pleno se da por enterado.

PUNTO 3º Dictámenes de las

Comisiones de Trabajo.

Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordetik.

De la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales.

1.- Kudeaketa-gomendio materialari buruzko hitzarmena, Eibarko Udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren artekoa, Tokiko Poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesuak kudeatzeko.

1.- Convenio de encomienda de gestión material entre el Ayuntamiento de Eibar y la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la gestión de los procesos selectivos de ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de Policía Local.

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Antolaketa eta Pertsonal zuzendariak aurkeztu duen Hitzarmenaren berri eman da, baita Idazkariak 2018ko maiatzaren 29an egindako txostenaren berri ere.

"Se da cuenta del Convenio presentado por la directora de Organización y Personal, así como del informe de la Secretaria de 29 de mayo de 2018.

Gaia bozkatu da. De los Toyos Nazabal, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Sarasqueta Aramburu eta Aguirre Unceta jaun-andreek baietza eman dute; eta Ibañez Anuncibay, Mendicute Rodríguez, Lamarain Cobo eta Cristobal Churruca jaun-andreak abstenitu egin dira. Horren ondorioz, Udalbatzari eskatzen zaio onar dezala honako proposamen hau:

Sometido a votación, con los votos favorables de los Sres y Sras. De los Toyos Nazabal, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Sarasqueta Aramburu y Aguirre Unceta, y las abstenciones de los Sres. y Sras. Ibañez Anuncibay, Mendicute Rodríguez, Lamarain Cobo y Cristobal Churruca, se propone al Pleno Municipal, apruebe la siguiente propuesta:

"Alkatetzaren Memoria ikusita, zeinak 2017ko enplegu-eskaintzako Udaltzaingoko Agente lanpostuko bost plazaren hautaketa-prozesua Arkauteko

"Vista la Memoria de Alcaldía por la que se propone aprobar y formalizar convenio de encomienda de gestión del proceso selectivo de cinco plazas de

Akademiak kudeatzeko gomendioari buruzko Hitzarmena onartzeko eta formalizatzeko proposamena egiten duen.

Proposatutako hitzarmena eta Idazkari Orokorrak egin duen txostena ikusita,
Hitzarmen hori onartzea eta formalizatzea Udalaren interesekoa delakoan,

Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 11. artikulua aplikatuta, erabaki hauek hartu dira:

Aurrena: kudeaketa-gomendio materialari buruzko Hitzarmena onartzea, Eibarko Udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren artekoa, Tokiko Poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko bost plazaren hautaketa-prozesua kudeatzeko.
Hurrena: alkate jaunari esandako Hitzarmen hori izenpetzeko baimena ematea.
Azkena: Hitzarmena Gipuzkoako Buletin Ofizialean ematea argitara."

Lamarain andreak hartu du hitza lehenik, esanez bere taldeak bi arrazoi dituela ados ez egoteko kontu honetan: batak, hautaketa egiteko moduari eragiten diola, eta besteak, udaltzaingoaren etorkizuneko ereduari.
Hautaketa-prozesuari dagokionez,

Agente Policía Municipal, resultantes de la oferta de empleo 2017, a la Academia Arkaute.

Visto el Convenio propuesto y leído el informe de la Secretaria General.
Considerando de interés municipal la aprobación y formalización del referido Convenio.

En aplicación del artículo 11 de la Ley 40/2015 del Régimen Jurídico del Sector Público, se acuerda:

Primero: aprobar el Convenio de encomienda de gestión material entre el Ayuntamiento de Eibar y la Academia vasca de Policía y Emergencias para la gestión de los procesos selectivos de ingreso de cinco plazas de Agente de la Escala Básica de Policía Local.
Segundo: autorizar al señor Alcalde para la firma del antedicho Convenio.

Tercero: disponer la publicación del Convenio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa."

Interviene en primer lugar la señora Lamarain quien afirma que su grupo tiene dos motivos para no estar de acuerdo en este asunto; uno, que afecta a la forma de hacer la selección, y otro al modelo a futuro de policía municipal.
En cuanto al proceso selectivo, prosigue,

funtsezkoena da kanpoko erakunde baten eskuetan lagatzen dela karrerako funtzionario hauen hautaketa-prozesua, horrek etorkizunean ekar ditzakeen ondorio guztiekin.

lo fundamental es que se deja en manos de otra institución de fuera el proceso selectivo de estos funcionarios de carrera, con todos los efectos que ello puede conllevar a futuro.

Jarraitu du esaten justifikazio gisa esan zela Udalak hautaketa-prozesu asko dituela abian, baina bere taldea ez du konbentzitzen justifikazio horrek; zeren egia da prozesu asko daudela martxan eta karga handia dela Pertsonaleko sailarentzat, baina gertatu dena da norbaiti bururatu zaiola martxan jartzea zortzi urtean atera barik zeuden prozesuak, eta horrek planifikazio falta handia erakusten du.

Prosigue afirmando que se dio como motivo justificativo que el ayuntamiento tiene en marcha muchos procesos selectivos, pero que a su grupo esta justificación no le convence, porque es verdad que están en marcha muchos procesos, con lo que supone de carga para el departamento de Personal, pero que lo que ha ocurrido es que a alguien se le ha ocurrido poner en marcha los procesos que estaban sin sacarse durante ocho años, lo que demuestra una gran falta de planificación.

Bat datoz prozesuak arindu behar direlako ustearekin, dio Lamarain andreak, baina hori ez da konpontzen Udalari egitea dagokiona beste erakunde batzuei egiteko eskatuta; soluzioa Pertsonal saila indartzea eta planifikazio bat egitea da.

Añade que comparten que haya que agilizar los procesos, pero que ello no se arregla con solicitar a otras instituciones que hagan algo que corresponde al ayuntamiento; sino que la solución viene de reforzar el departamento de personal y de una planificación.

Gainera, jarraitu du, prozesua kanpoko beste erakunde batek eramaten badu, askoz ere zailagoa izango da Eibarko edo Eibar inguruko pertsonak aurkeztea.

Además, continúa, si el proceso lo lleva otra institución de fuera, será mucho más difícil que se presenten personas de Eibar o de cerca de Eibar.

Halaber, aipatu duen bigarren arrazoiak tokiko zer polizia mota nahi den planteatzen du; izan ere, bere taldeak nahiko luke gertuko polizia bat izatea eta ez Ertzaintzan trebatutako polizia bat;

Dice así mismo que el segundo motivo apuntado responde a la pregunta de qué tipo de policía local se desea; porque su grupo desea que sea una policía cercana y no una policía adiestrada en la

ahalik eta poliziarik hurbilena eta, ahal dela, herriko jendea ezagutzen duena, eta ez Ertzaintzaren mendekoa; hitz batean esanda, Eibarko udaltzain bat.

Ertzaintza, una policía lo más cercana posible y que a poder ser conozca a la gente del pueblo, y no dependiente de la Ertzaintza, en definitiva, una policía de Eibar.

Amaitzeko esan du bi arrazoi horiengatik emango duela bere taldeak kontrako botoa.

Finaliza diciendo que por estos dos motivos su grupo votará en contra.

Jarraian Aguirre andreak hartu du hitza; esan du gaiaren alde egin zuela, uste zuelako baldin trebakuntza bazen eta Udalari zama kentzen bazion interesgarria zela, eta saihestuko zuela trebakuntza-programa zabal bat eramatea, eta agian Udala ez zegoela prestatuta horretarako; eta, gainera, doakoa zela.

Baina gero pentsatu duela gauza bat dela Ertzaintzarako trebakuntza eta beste bat Udaltzain izateko trebakuntza edo formazioa.

Amaitu du esanez abstenitu egingo dela, desberdina delako udaltzainaren kontzeptua eta ertzainarena.

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que votó a favor del tema porque le parecía que todo lo que fuera formación y liberar de carga al ayuntamiento era interesante, y evitaría el tener que llevar todo un programa de formación para el que igual no se estaba preparado, y además gratuito.

Pero luego, prosigue, ha pensado que una cosa es la formación para la Ertzaintza y otra la formación para policía municipal.

Concluye diciendo que se va a abstener porque es diferente el concepto de policía municipal, del de ertzaina.

Jarraian Mendicute jaunak hartu du hitza; adierazi du bere taldearen ustez aukera ona dela, asko arinduko duelako hautaketaren kudeaketa; eta atentzioa ematen diola gai honi trabak jartzea eta ez beste batzuei, hala nola kontu-hartzailearen hautaketari, hori ere beste erakunde batzuen bidez egiten baita.

Interviene a continuación el señor Mendicute quien afirma que su grupo piensa que es una buena oportunidad porque aligerará mucho la gestión de selección y que le llama la atención que se pongan pegas a este tema, y no a otros como la selección del interventor que se hace por otras instituciones.

Gaineratu du kudeaketa arindu ez ezik, formazioari dagokionez ere, estandar europarrekin trebatutako polizia bat izango dela; eta hitzarmenean garbi geratzen dela kontua ez dela gero udaltzain gisa etorriko diren ertzainak trebatzea; udaltzaingoaren oinarrizko mailako agente izateko behar den formazioa jasotzea baizik.

Añade que no sólo se agiliza la gestión; sino que de cara a la propia formación que recibirán estos policías, será una policía formada en base a estándares europeos, y que queda claro en el convenio que no se trata de que se formen ertzainas que luego vengan como policías municipales; sino que van a recibir una formación adecuada para ser agente de la escala básica de policía local.

Jarraitu du esaten Arkaute ez dela Eibarko erakunde bat; baina kanpoko erakunde bat ere ez dela, zeren gure poliziaren akademia baita.

Esan du, halaber, udaltzainak poliziak direla eta beraiek ondo deritzotela polizia-formazioa izateari.

Prosigue diciendo que Arkaute no es una institución de Eibar; pero que tampoco es una institución de fuera, pues es la academia de nuestra policía.

Afirma así mismo que los policías municipales son policías y que les parece bien que tengan una formación como policías.

Bere taldeak uste du aukera bat dela eta beharrezkoa, justu une honetan, noiz eta Europan estandarizazio bat izaten ari denean, justu orain, noiz eta erronka berri bat dagoenean segurtasun-alorrean; izan ere, segurtasunak arazo berriak baititu hirietan, baita Eibarren ere. Hortaz, analisi bat egin beharra dago, eta bere taldeak jarraituko du segurtasun-batzorde bat eskatzen.

Que su grupo considera que es una oportunidad, prosigue, en este momento en que se está dando una estandarización en Europa, en el momento en que hay un nuevo reto en materia de seguridad, en un contexto en el que la seguridad tiene nuevos retos en las ciudades, entre ellas Eibar, y en este sentido, hay que hacer un análisis; por lo que su grupo seguirá solicitando una comisión de seguridad.

Halaber, esan du bere taldeak gertuko udaltzaingo bat nahi duela eta hurbileko ertzaintza bat, eta Ertzaintzaren Plan Estrategikoan jasotzen direla hurbileko

Dice también que su grupo desea una policía municipal cercana y una ertzaintza cercana y que en el Plan Estratégico de la Ertzaintza se recogen

polizia bat izateko jarduketak.

actuaciones para ser una policía más cercana.

Amaitu du esaten berriz ere garbi laga nahi duela formazioa ez dela ertzain izateko, udaltzain edo tokiko polizia baizik; eta berek uste dute erreminta ezinhobea dela hau tokiko udaltzainak trebatzeko eta haien akademiako praktiken tutoretzarak; beraz, aldeko botoa emango dute.

Finaliza afirmando que insiste en que la formación no es para ertzaina, sino para policía local; y que consideran que para la formación de los policías locales y la tutela de sus prácticas en la academia ésta es una herramienta inmejorable, por lo que votarán a favor.

Jarraian alkate jaunak hartu du hitza esanez nahasketa pixka bat dagoela gaian eta bigarren aldia dela Arkautek aukera hau ematen duela; eta iaz ezetz esan zitzaiola eskaintzari, uste izanik Udalak hobeto kontrolatuko zuela prozesua.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que hay un poco de equívoco en el tema y que es la segunda vez que se ofrece desde Arkaute esta oportunidad habiéndose declinando el ofrecimiento el año pasado, pensando que desde el ayuntamiento se controlaría mejor el proceso.

Gaineratu du Udalean kudeaketa-arazo bat dagoela lanpostuen deialdiak ateratzeko —behin-behinekotasuna amaitzeko hartutako konpromisoari erantzunez atera dira lanpostuak—; eta deialdi bateratu honetan ez sartzeak, zeinarekin bat egin duten dozenaka udalek, arintasun-arazo bat ekarriko luke, Udalak berak egin arren, Arkauteko ordezkari bat behar delako, eta haren izendapenak luze joko luke, handik jakinarazi duten bezala.

Añade que en el ayuntamiento hay un problema de gestión para sacar las convocatorias de las plazas conforme al compromiso adquirido de ir acabando con la temporalidad, y que el no entrar en esta convocatoria unificada, a la que se han adherido decenas de ayuntamientos, traería un problema de agilidad, pues aunque se haga por el propio ayuntamiento, se precisa un representante de Arkaute cuya designación tardaría en efectuarse mucho, como así se ha participado.

Orobat esan behar da Udalak egin dituenean prozesuetan, hautatuak 18 hilabetez joaten zirela Arkautera

También hay que decir, prosigue, que cuando el ayuntamiento ha hecho los procesos, los seleccionados iban 18

formazioa jasotzera; hortaz, Arkauteko "intoxikazio"-aren beldur hori lehen ere bazegoela, baldin eta halakorik bazegoen.

meses a Arkaute a recibir formación, con lo cual ese miedo a la “intoxicación“ en Arkaute ya se daba, si es que había algún miedo.

Aurrerago dio lanpostu horiek betetzeko bide arinena bilatzen ari dela, ezin delako ahaztu errotazio handia dutela eta horrek gastua dakarkiola Udalari, berriei jantziak eman behar zaizkie-eta.

Dice más adelante que se está buscando el camino que dé más agilidad para poder cubrir estas plazas de policía porque no hay que olvidar que tienen mucha rotación, y que ello implica gasto para el ayuntamiento, pues a los nuevos hay que dotarles de vestuario.

Alkate jaunak gaineratu du ezin dela ahaztu ere Udaltzaingoan laster izango den belaunaldi-erreleboa, jubilazioak 60 urterekin izango baitira, eta sistema hau arintasun handia ekarriko duen erreminta bat dela.

Añade que tampoco hay que olvidar el relevo generacional que se va a dar en la policía municipal, con las jubilaciones a los 60 años, y que este sistema es una herramienta que va a dar mucha agilidad.

Bestalde, Udaletik eginda errazagoa da probak gainditzen dituztenak Eibarkoak edo ingurukoak izatea; kontuan izan behar da, jarraitu du, egindako azken plaza-deialdietan ez dituela Eibarko inork atera, eta behin hautaketa-probak egin ondoren, agente bakoitzak bilatuko dituela baldintzarik onenak eta hurbiltasun geografikoa; beraz, Eibarrek baldintza onak eskaintzen baditu, baliteke agente batzuek Eibarrera etortzea eskatzea.

En cuanto a que si se hace desde el ayuntamiento es más fácil que quien saque las pruebas sean de Eibar o del entorno, continua, hay que tener en cuenta que las últimas plazas convocadas no las ha sacado nadie de Eibar, y que una vez se hagan las pruebas selectivas cada agente buscará las mejores condiciones y la cercanía geográfica, por lo que si Eibar ofrece buenas condiciones, puede haber agentes que pidan Eibar como destino.

Amaitu du esaten hautaketa eta formazioa dagokion lanpostuarekin lotua dagoela, alegia, udaltzain lanpostuarekin, alegia.

Finaliza afirmando que la selección y formación está vinculada al puesto de que se trata, que es de policía municipal.

Lamarain andreak hartu du hitza berriz

Interviene de nuevo la señora Lamarain

ere; esan du kontu-hartzaileak ez duela harreman zuzenik herritarrekin, eta formazioa Arkauten izan arren hautaketa-prozesua desberdina izango dela udaltzain batentzat orokorrean diseinatu bada, edo Udalak Eibarko udaltzain izateko diseinatu badu.

quien afirma que el interventor no tiene que relacionarse con los ciudadanos y que aunque la formación sea en Arkaute será diferente el proceso de selección diseñado para un policía municipal en general al diseñado por el ayuntamiento para ser policía municipal en Eibar.

Argitu du kanpoko erakundeei buruz hitz egiten duenean, Udalekoak ez diren entitateei buruz ari dela.

Aclara que cuando habla de instituciones de fuera, se refiere a instituciones que no son el ayuntamiento.

Halaber, bi eredu kontrajarri daudela dio: bere taldeak esan du udaltzainak gertuko agenteak izan behar direla eta ez poliziak, zeren poliziak asko baitira Eibarren. Eredu horietako bakoitzak bere eginkizunak ditu, eta argitu behar dena da ea zein diren bakoitzaren eginkizunak; eta Udalak diseinatzen badu prozesua, bere udaltzainen eginkizunak islatuko lituzke herriaren beraren ikuspegitik.

Dice así mismo que hay dos modelos contrapuestos, que su grupo ya ha dicho que los policías municipales tienen que ser agentes cercanos y no policías, pues policías ya hay muchos en Eibar, que cada uno de estos modelos tiene sus funciones, que lo que hay que aclarar es cuáles son las funciones de cada uno y que si el ayuntamiento diseña el proceso reflejaría la funciones de su policía municipal desde el punto de vista del propio pueblo.

Gaineratu du egia dela Pertsonaleko sailak kudeaketa-arazoak dituela, baina hori konpon daitekeela saila indartuz eta planifikazio egokia eginez.

Añade que es verdad que el área de personal tiene problemas de gestión, pero que ello se puede arreglar reforzando el área y con una buena planificación.

Amaitu du esaten udal guztiak ez direla sartu prozesu bateratu horretan, eta, hala, Hernanik bere prozesu propioa egin duela.

Finaliza afirmando que no todos los ayuntamientos han entrado en este proceso unitario y que así Hernani ha efectuado su propio proceso.

Askoz errazagoa da datorrenak Udalak ezarritako zereginak betetzea Udalak hautatu badu, beste erakunde batek hautatu badu baino.

Es mucho más fácil, concluye, que quien venga cumpla con las funciones fijadas por el ayuntamiento si lo ha seleccionado el ayuntamiento, que si lo

ha seleccionado otra institución.

Berriz ere Mendicute jaunak hartu du hitza; adierazi du egia dela udaltzaina kalean dagoela eta kontu-hartzailea gehiago egoten dela bulegoan, baina horrek ez du esan nahi kontu-hartzaileak harremanik ez duenik herritarrekin; gainera, pertsona bat kontu-hartzailearengana doanean, ez da izaten gai atseginengatik.

Gaineratu du bere taldea prest dagoela aztertzeko zer izan behar den udaltzaina, eta Eibarko Udaltzaingoan bertan sortzen ari direla mugimendu eta kexa batzuk; hortaz, badago lan egin beharra hura kohesionatzeko, eta lan horretan udal talde batzuk ez dira parte hartzen ari.

Interviene de nuevo el señor Mendicute quien afirma que es verdad que la policía local está en la calle y el interventor más en la oficina, pero que ello no quiere decir que el interventor no tenga relación con los ciudadanos, además, cuando una persona va donde el interventor no suele ser para temas agradables.

Añade que su grupo está dispuesto a analizar lo que tiene que ser el policía municipal y que en la propia policía municipal de Eibar están surgiendo unos movimientos y quejas, por lo que hay trabajo por hacer para cohesionar, trabajo en el que algunos grupos municipales no están participando.

Orobat dio Mendicute jaunak esan daitekeela zer izan behar den udaltzaingoa, baina kontuan hartu behar dela legez polizia bat dela bere eginkizun propioak dituena, zeinak ez diren ez Guardia Zibilarenak ez Ertzaintzarenak.

Ez dira ez atezain, ez txofer pribatu, ez errekadista; poliziak dira eta definitu egin beharko da zer eredu nahi den polizien eginkizunen marjinaren barruan, baldin eta nahi bada gertuko polizia bat izatea; baina nahi bada poliziak ez izatea, beste era bateko lanpostuak sortu beharko dira.

Afirma así mismo que se puede decir lo que tiene que ser la policía municipal, pero que hay que tener en cuenta que por ley es una policía con sus propias funciones, que no son las de la Guardia Civil o las de la a Ertzaintza.

No son, concluye, conserjes, ni chóferes privados, no son recadistas; son policías y habrá que definir qué modelo se desea dentro del margen de las funciones de los policías, si es que se quiere que sea una policía cercana; pero si se desea que no sean policías, habrá que crear otro tipo de puestos.

Alkate jaunak dio garbi geratu dela udaltzainak poliziak direla, eta gero herri bakoitzak nahi dituen eginkizunak ezarriko dizkiola, hau da, poliziaren profil bat ezarriko dio edo udaltzainarena.

Afirma el señor Alcalde que ha quedado claro que la policía municipal es policía y que luego cada municipio le asignará las funciones que desee, un perfil más de policía o de municipal.

Aurreko irizpena botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (14): Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV).

Votos afirmativos (14): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV).

Ezezko botoak (5): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Votos negativos (5): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Abstentzioak (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

Pertsonal Lan Batzordetik.

De la Comisión de Trabajo de Personal.

Udal Lantaldearen 2018ko produktibitate-osagarriak onartzea.

Aprobación de los siguientes complementos de productividad de la

Brigada Municipal correspondiente al año 2018.

Irizpen hau irakurri da:

"Zerbitzu Sailak egindako proposamenak Mantentze Lantaldeko langileen 2017. urteko produktibitateari buruzko ebaluazioa dakar, Zerbitzu Alorreko Arduradunak eta Mantentze Lantaldeko Arduradunak egindakoa, Mantentze Lantaldeari Produktibitate Osagarria emateko akordioan aurreikusitakoaren araberakoa. Hori aztertuta, Pertsonal Lan Batzordeak proposamen hau egiten dio Udal Osoko bilkurari,

2018ko urteari dagozkion produktibitate-osagarriak onartzea; hain zuzen ere, irizpen honi erantsitako agirian jasotakoak.

Agerian utzi da produktibitate-osagarria lanpostuen balorazio berria onartzen ez den bitartean aplikatzen dela.

Bozketaren emaitza:

Aldekoak: Albistegui, Larrauri, Benítez eta Telleria jaun-andreak.

Abstentzioak: Astigarraga, Errasti, López de Guereñu, Garate, eta Aguirre jaun-

Se da lectura al siguiente dictamen:

"A la vista de la propuesta presentada por el Área de Servicios sobre la evaluación de la productividad del personal de la Brigada de Mantenimiento durante el año 2017, realizada por el Responsable del Área de Servicios y el Encargado de la Brigada de Mantenimiento, según lo previsto en el Acuerdo sobre el Complemento de Productividad a la Brigada de Mantenimiento, la Comisión de Trabajo de Personal propone para Pleno

Aprobar los complementos de productividad correspondientes al año 2018 recogidos en el documento adjunto.

Se pone de manifiesto que el complemento productividad se aplica en tanto no esté aprobada la nueva valoración de puestos de trabajo.

Resultado de las votaciones:

A favor: Sr. Albistegui, Sra. Larrauri, Sr. Benítez, Sra. Telleria,

Abstención: Sra. Astigarraga, Sr. Errasti, Sr. López de Guereñu, Sra. Garate, Sra.

andreak."

Aguirre."

Errasti jaunak hartu du hitza; esan du bere taldeak 2017ko osagarria onartu zenean esan zutena errepikatuko duela: osagarria kobratzearen aldeko botoa emango dutela Lantaldeako langileei kalterik ez egitearren, baina neurri desegokia eta "txapuzeroa" iruditzen zaiela. Bere sasoian txisteratik atera zen osagarria Udal Lantaldeari igoera orokor bat ez egiteko, baina uste dute neurriak giro txarra eragiten duela Lantaldearen barruan, eta diskriminatzailea dela Udaleko gainerako sailekiko.

Interviene el señor Errasti quien afirma que su grupo va a reiterar lo que dijo con ocasión de la aprobación del complemento del 2017: que van a votar a favor del complemento por no ir en detrimento de los trabajadores de la Brigada, pero que les sigue pareciendo una medida chapucera, que en su día se sacó de la manga por no hacer una subida generalizada a la Brigada; pero que consideran que es una medida que genera malos rollos dentro de la propia Brigada y que es discriminatoria con el resto de los departamentos del ayuntamiento.

Gaineratzen du beraiek kontziente direla: lanpostuen balorazioarekin erregularizatu nahi da egoera, baina ez dakite noiz deituko den balorazio-mahai hori, eta gaia atzeratzen ari da, berek nahiko luketena baino gehiago.

Añade que son conscientes que se pretende regularizar la situación con la valoración de puestos, pero que desconocen cuándo se va a convocar a esta mesa de valoración y que el tema se está dilatando en el tiempo, más de lo que quisieran.

Garate andreak hartu du hitza; berretsi egin du 2017ko produktibitatea onartu zuen bilkuran esandakoa eta aldeko botoa emango dutela dio, betiere lanpostuen balorazioan zenbateko horiek

Interviene la señora Garate quien afirma que reitera lo que dijeron en el pleno que aprobó la productividad del 2017 y que votarán a favor, en vista a que en la valoración de los puestos de trabajo se

postuaren barruan sartuko direlakoan —udal lantaldeko soldaten % 2,38 dira osagarri horiek—; halaber esan du bere taldea ere zain dagoela balorazio-mahai hori noiz bilduko.
Gaineratu du aurreko bilkuran lan-absentismoari buruzko datuak eskatu zituztela eta oraindik ez direla aurkeztu Pertsonaleko batzordean.

absorba estos importes, y que suponen un 2,38% de los salarios de la brigada, y que su grupo también está a la espera de que se ponga en marcha la mesa de valoración.
Añade que en el pleno anterior solicitaron los datos de absentismo laboral y que todavía estos datos no se han presentado en la comisión de personal.

Alkate jaunak dio, halaxe dela, kontua dela lanpostuen balorazioak egoera horiek bere gain hartzea; eta balorazioa nahi baino gehiago luzatzen ari dela, eta ez dakitela ez ote dituzten neurri zorrotzagoak hartu behar izango. Une honetan, zain daude fitxak hobeto landuta zuzendaritzetara bidaltzeko, hala, langileen adierazpenak eta arloetako buruen balorazioak alderatu ahal izateko; eta espero dute mahai hori laster deitzea.

Afirma el señor Alcalde que en efecto se trata que la valoración de puestos integre estas situaciones, valoración que se está atrasando más de lo que desearían, y sobre la que no sabe si habrá que adoptar medidas más drásticas, que se está en la situación de que se remitan a las jefaturas las fichas mejor elaboradas para poder contrastar las declaraciones de los trabajadores con la valoración de los jefes, y que espera que pronto se pueda convocar esta mesa.

“Txapuza” hitzari dagokionez, amaitu du, gogorarazi beharra dauka osagarria sindikatuen akordioarekin onartu zela, eta, beraz, denak izango liratekeela "txapuza” horren arduradun.

En cuanto al término chapuza, concluye, tiene que recordar que el complemento se aplicó con el acuerdo sindical, y que por tanto todos serían responsables de la chapuza.

Aguirre andreak dio abstenitu egingo dela bi arrazoirengatik: ez duelako ezagutzen alkate jaunak aipatutako testuinguru

La señora Aguirre afirma que se va a abstener por dos razones: porque desconoce el contexto histórico

historikoa, eta, beraz, ezin duelako bere gain hartu ezagutzen ez duen zerbait; eta kontua baldin bada hartutako konpromiso bat betetzea, uste dute zifra horiek aplikatu beharrean —zeinekin oso zaila iruditzen zaion zuzen jokatzea—, igoera lineal bat aplikatu beharko litzatekeela.

Alkate jaunak dio produktibitate-osagarria erabiltzen dela Eudelek proposatutako % 0,6 aplikatzeko, baina legez produktibitate-osagarria ezin dela lineala izan; osagarri pertsonala izan behar da eta bakoitzak duen produktibitateari lotua egon.

mencionado por el señor Alcalde, y por tanto no puede asumir algo que desconoce, y porque si se trata de cumplir un compromiso adquirido cree que en vez de aplicar esta cifras con las que le parece es muy difícil ser justo, se debería de aplicar una subida lineal.

Afirma el señor Alcalde que se utiliza el complemento de productividad para aplicar el 0,6% propuesto por Eudel, pero que el complemento de productividad por ley, no puede ser lineal, sino que tiene que ser personal y está vinculado a la productividad que cada uno tiene.

Aurreko irizpena botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (19): Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV).

Votos afirmativos (19): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

4. ATALA. Premiak.

Idazkariak dio ez dagoela izaera juridiko-administratiboko gairik urgentzietan tratatzeko.

5. ATALA Irabazi taldeak aurkeztu duen mozioa Eibarren ortu ekologikoak sortzeko eta parke abandonatuak egokitzeko.

Testu hau irakurri da:

"María Jesús Aguirre Uncetak, Irabazi Eibar taldeko bozeramaleak, mozioa aurkezten du, Udalbatzak eztabaida dezan. "Eibarren ortu ekologikoak sortzea eta parke abandonatuak egokitzea".

Ekainaren bostean ospatu zen Ingurumenaren Mundu Eguna eta horren harira proposamen bat dakargu, sinetsita gaudelako gure herrian hiri-nekazaritza bultzatzea garrantzitsua dela, uste baitugu hiri-ortuak elikagai freskoak sortzeko lekuak izan daitezkeela, hondakinen

Abstenciones (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

PUNTO 4º. Urgencias.

Indica la Secretaria que no hay ningún asunto de carácter jurídico administrativo para ser abordado como urgencia.

PUNTO 5º Moción presentada por el grupo Irabazi relativa a la creación de huertos ecológicos urbanos en Eibar y acondicionamiento de parques abandonados.

Se da lectura al siguiente texto:

"La portavoz del grupo municipal Irabazi-Ganemos Eibar, María Jesús Aguirre Unceta, presenta para ser debatido en el próximo Pleno Ordinario la siguiente moción: "Creación de huertos ecológicos urbanos en Eibar y acondicionamiento de parques abandonados".

En el marco del Día Mundial del Medio Ambiente, celebrado el pasado cinco de junio, traemos esta propuesta, convencidas de la importancia que puede alcanzar el fomento de la agricultura urbana en nuestra ciudad, entendiendo los huertos urbanos como

birziklaleku, elkartzeko leku partekatuak eta hirientzako gerriko berdeak…; hortaz, denbora-pasa baino zerbait gehiago da. Irabaziren ustez, halako toki-ekimenek benetako inpaktu globala dute, eta aldaketa klimatikoaren aurka borroka egiteko adibide ere izan daitezke.

Udalak urte honetarako Ingurumenaren batzordean bultzatutako ekintza espezifikoetatik abiatuta, Irabazi taldeak beharrezkotzat jotzen du ekintza horiei babes handiagoa ematea, ekintza jakin batzuk garatuz: hiri-ortuak sortzea eta abandonatutako beste espazio publiko batzuk hobetzea eta berreskuratzea.

Horregatik, uste dugu garrantzizkoa izango litzatekeela araudia era horretako proiektuen jatorrizko ideiara egokitzea, herritarrek bultzatutako egitasmoak dira-eta. “Hiri-ortu komunitario" horiek aurrera eramateko oinarrizko printzipioak honela laburbildu daitezke: 1) Ortu irisgarriak izan behar dira, etxeetatik gertu eta hiriaren esparru batean egon behar dute; 2) Autokontsumorako balio behar dute eta “elikadura-burujabetza” sustatu; 3) Antolamendu aldetik, hasieratik izan dezatela ikuspegi komunitario, feminista eta belaunaldiartekoa; 4) Autogestioan oinarritu daitezela, ziurtatuz parte hartzen duten herritarrek erabakitzeko eskubidea

espacios de generación de alimentos frescos, reciclaje de residuos, lugares compartidos de encuentro y dotación a la población de cinturones verdes… y no tanto como un mero pasatiempo lúdico. Para Irabazi este tipo de iniciativas locales tiene un impacto global real y pueden ser un ejemplo de lucha frente al cambio climático.

Partiendo de las acciones específicas impulsadas por el Ayuntamiento para este año en la Comisión de Medio Ambiente, desde Irabazi vemos necesario dar más apoyo a las mismas, desarrollando unas acciones determinadas: la creación de huertos urbanos y la mejora de otros espacios públicos abandonados y necesitados de una acción inmediata.

Por ello pensamos que sería importante ajustar la normativa a la idea original de este tipo de proyectos creados e impulsados originalmente por la misma ciudadanía. Los principios básicos para llevar a cabo estos “Huertos Urbanos Comunitarios” se podrían resumir en los siguientes puntos: 1) Huertos accesibles, cercanos a las casas y en un área urbana; 2) Que sirvan para el autoconsumo, promocionando así la denominada “soberanía alimentaria”; 3) Que, organizativamente hablando, tengan desde el origen un enfoque comunitario, feminista e intergeneracional; 4) Que,

izango dutela Hiri Ortuen ekimenarekin lotutako neurrietan.

operativamente, se basen en la autogestión, asegurando que la ciudadanía participante tenga pode real de decisión en el conjunto de las directrices municipales relacionadas con la iniciativa de Huertas Urbanas.

Hala, erakundeen logika horizontal baten ikuspegitik eta udal araudiaren barruan, uste dugu gaur aurkezten dugun egitasmoa Eibarko beste auzo batzuetara zabal litekeela, lehen esperientzia hau positiboa eta aberasgarria izaten bada.

Así, desde una lógica de intervención institucional horizontal y dentro de una normativa municipal, consideramos que, incluso, se podría extender el proyecto que hoy presentamos a otros barrios de Eibar, si esta primera experiencia resulta positiva y enriquecedora.

Horregatik guztiagatik,

Por todo ello,

MOZIOA

MOCIÓN

1) Proposatzen dugu Eibarko Udal Batzarrak Gobernu taldea hertsatzea gara dezan Mirafloreseko maldan dagoen terrenoa —orain Udalarena dena dohaintza baten bidez—, Udalak diseinatu eta kontrolatutako ortuak bihurtzeko.

1) Proponemos que el Pleno del Ayuntamiento de Eibar inste al Equipo de Gobierno a que desarrolle el terreno que se encuentra en la falda de Miraflores, - ahora propiedad del municipio a través de una donación -, de forma que pueda convertirlo en unas huertas diseñadas y controladas por el Ayuntamiento.

2) Ingurumen sailak egin ditzala beharrezkoak diren gestioak, deialdi publiko baten bidez, etorkizuneko “ortulariek” ortu ekologikoen erabilera balia dezaten, beren aldetik jardunbide onen erantzukizuna bere gain hartuz, produktu ekologikoak eta sasoikoak erabiliz.

2) Que el Departamento de Medio Ambiente lleve a cabo las gestiones necesarias para, a través de una convocatoria pública, los futuros “hortelanos” puedan acceder al uso de esos huertos ecológicos, asumiendo por su parte la responsabilidad que conlleve un buen hacer, con cultivos ecológicos y

de temporada.

3) Ezar dadila arduradun bat antolaketa komunitario horretatik erator daitezkeen ekintzak koordinatzeko, eta denok aho batez onartutako araudi batean oinarrituta denek atera ahal izateko etekina beren ortu propioa lantzetik.

3) Que se establezca un responsable para coordinar las acciones que se deriven de esa organización comunitaria, de forma que, basándose en una normativa aceptada unánimemente, todos puedan beneficiarse de las ventajas de trabajar su propio huerto.

4) Eta, esparru hori ortu-eremu bihurtzeaz batera, eskatzen diogu Zerbitzuen sailari ingurune horretan errepide ondoan abandonatuta dagoen parkea aldatu, konpondu eta zaharberritu dezala, leku seguru, erakargarri eta erabilgarria izan dadin eibartarrontzako aisialdi leku gisa."

4) Y, junto con el cuidado de convertir esa área en huertos cultivados, solicitamos al área de servicios trate de modificar, reponer y renovar el parque abandonado contiguo a la carretera en el mismo entorno, para volverlo seguro, atractivo y útil como lugar de ocio y descanso para eibarresas y eibarreses."

Aguirre andreak hartu du hitza esanez herritarrak etengabe ari direla eskatzen gai honekin zerbait egiteko eta bere taldearen kezka bat dela.

Gaineratu du gerriko berde moduko bat egin litekeela Eibar inguruan, herria mendiarekin lotuko lukeena, eta trantsizio ekologiko antzeko bat izango litzatekeena baserri-mundurantz.

Udalak zortea izan du leku berezi baten dohaintza jasotzean, oso leku eguzkitsua baita ezponda arin batekin, eta erabilerarik gabekoa, ezpada okupen

Interviene la señora Aguirre quien afirma que esto es un intento de llevar a cabo algo que está continuamente pidiendo la ciudadanía y que es inquietud de su grupo.

Añade que se podría crear una especie de cinturón verde alrededor de Eibar que uniese el urbano con el monte, constituyendo una especie de transición ecológica hacia el área rural.

El ayuntamiento, prosigue, ha tenido la suerte de recibir una donación de un lugar especial, pues es muy soleado con un talud muy suave y que está sin uso

okupazio irregulararra; hortaz, aukera egokia izango litzateke gauzak ondo egiteko, okupazioa txabola eta oilotokiekin egin baita, eta itxura penagarria ematen du.

salvo la ocupación irregular por okupas lo cual sería ocasión para poner las cosas en firme, pues la ocupación es con chozas y gallineros dando un aspecto deplorable.

Jarraitu du esaten errepide ondoan dagoen parkearen egoera negargarria dela, eta era guztietako zikinkeriak daudela; beraz, lortzen bada parke hori txukuntzea eta aisialdi gune bat bihurtzea eta berreskuratzen badira begiratokira jaisten diren eskailerak, inguru guztian ekintza eredugarri bat egingo da, beste auzo batzuetara zabal litekeena.

Prosigue afirmando que la situación del parque que está al lado de la carretera es indecente, y que hay todo tipo de porquerías, por lo que si se logra adecentar este parque y convertirlo en un lugar de ocio y se recuperan las escaleras que bajan hacia el mirador; se estaría haciendo en todo el área una acción ejemplar, que se podría extender a otros barrios.

Baldintza egokiak daude hau martxan jartzeko, lurra baitago, interesa eta zerbait egitea eskatzen duen jendea.

Se está en las mejores condiciones para poner esto en marcha, concluye, ya que se dispone de suelo, de interés, y hay gente que demanda que se ponga en marcha.

Jarraian Lamarain andreak hartu du hitza adieraziz bere taldea erabat ados dagoela ortu ludikoekin, eta bere taldeak 2015eko aurrekontuari aurkeztutako zuzenketaren ondorioz egin zela Sakuneko ortu ludikoen proiektua; baina jabeekin bilera eta atzera-aurrera ugariren ondoren, ezin izan zela proiektua aurrera eraman.

Interviene a continuación la señora Lamarain quien afirma que su grupo es totalmente conforme con los huertos lúdicos y que así, por la enmienda presentada por su grupo al presupuesto del 2015, se hizo el proyecto de huertos lúdicos en el Sakun; pero que después de muchas idas y vueltas con los propietarios, no se pudo llevar a efecto el proyecto.

Gaineratu du arrazoi asko daudela ortu ludikoak martxan jartzeko, bai arrazoi ekologikoak, bai arrazoi sozialak, zeren

Añade que hay muchas razones para poner en marcha los huertos lúdicos, tanto razones ecológicas, como

ekologikoki berdegune bat sortuko baita eta sozialki ortu horiek aisialdirako eta elkarbizitzarako beste aukera bat direlako.

sociales, porque ecológicamente se va a crear una zona verde y porque socialmente estos huertos es otra forma de ocio y de convivencia.

Bere taldeak ortuak defendatzen baditu ere, Lamarain andreak dio esperientziak erakutsi diela, proiektu bat aurrera ateratzeko, ez dela komeni egitasmoak leku zehatz batera mugatzea; izan ere, kokaleku zehatz bat ezin bada erabili ezingo litzateke proiektua aurrera atera.

Aunque su grupo defiende estos huertos, prosigue, la experiencia les ha mostrado que para llevar adelante un proyecto, no es conveniente limitar los proyectos a un lugar concreto, ya que si no resultase posible esa ubicación, ello sería motivo de que el proyecto no se llevase adelante.

Jarraitu du esaten ez dutela uste Miraflores oso leku egokia denik ortu ludikoak jartzeko eta agian ortuetarako egokia dela, baina ortu ludikoak izateko hainbat arazo ikusten dituztela; mozioak berak jasotzen duen bezala, beharrezkoa da irisgarriak izatea eta herritik hurbil egotea; eta ortu horiek malda handia dute.

Prosigue su intervención diciendo que no creen que Milaflores sea un lugar muy adecuado para los huertos lúdicos, y que puede que sea conveniente para huertos, pero que para que sean huertos lúdicos, ven algunos problemas pues, como la propia moción recoge, se precisa que sean accesibles y cercanos a la zona urbana; y estos huertos tienen una gran pendiente.

Amaitu du esanez aztertu egin behar dela zein den leku egokiena, eta horregatik eskatzen dutela edo Mirafloresi buruzko aipamena kentzea edo mozioa puntuz puntu bozkatzea.

Finaliza afirmando que consideran que hay que estudiar cuál puede ser el lugar apropiado y que por ello solicitan que, o se elimine de la moción la referencia a Milaflores, o se pueda votar la moción punto por punto.

Atzera ere Aguirre andreak hartu du hitza; esan du ez zaiola gustatzen ludiko adjektiboa, ortua ekologikoa izango delako, autokontsumorako, nekazaritza ikasteko, lurrarekin harremanetan

Interviene de nuevo la señora Aguirre para afirmar que no le gusta el adjetivo de lúdico, porque el huerto será ecológico, de autoconsumo, de aprendizaje de la agricultura, de estar en

egoteko, baina ludiko esatean jolas bat dela ematen duela, eta ortu hauek ez dira jolas bat.
Aurrerago dio harrigarria egiten zaiola Sakunen arazoak sortu izana, ezponda bertikala delako eta jabeak ahal izan zuen guztia eskatu zuelako, Udala izan baitzen desjabetu zuena; baina oraingo kasuan, ortua Udalarena da eta okupatuta dagoela, eta okupatzen duenak beretzat hartu du ortuaz baliatzeko eskubidea, baina gauzak ondo egin daitezke, eta Sakuneko maldak edo ezpondak ez dauka zerikusirik honekin.

contacto con la tierra, pero el decir que es lúdico parece que es como un juego, y estos huertos no son juego.
Dice más adelante que le extraña que en el Sakun surgiesen problemas, pues el talud es vertical y la propietaria pidió todo lo que pudo porque fue el ayuntamiento el que expropió; pero que ahora se trata de un huerto que ya es del ayuntamiento y que está ocupado por alguien que se ha arrogado el derecho a hacerlo pero que las cosas se pueden hacer bien, y que el talud del Sakun no tiene nada que ver con este.

Lamarain andreak esan du ludiko hitzarekin bere taldeak ez duela jolasa esan nahi, baina mozioak berak azpimarratzen duela irisgarriak izan behar direla eta herritik gertu egon; eta uste dutela proposatutako lekuak ez dituela baldintzak betetzen hiri-ortua izateko, hortaz, proposatzen dute lekuarekin ez itsutzea, zeren ezin bada proiektua hor egin alde batera lagatzen baita, Sakunekin gertatu zen bezala.

La señora Lamarain afirma que con lúdico su grupo no se refiere a jugar, pero que la propia moción insiste en que tienen que ser accesibles y cercanos a la zona urbana, y que el sitio propuesto consideran que no reúne las condiciones de un huerto urbano, por lo que proponen no obsesionarse con un lugar porque si resulta fallido se aparta el proyecto, como ocurrió con el Sakun.

Jarraian Garate andreak hartu du hitza; esan du ortu ekologikoak sortzea ez dela kontu berria Udal honetan; izan ere, orain dela urte asko Herri Batasunako zinegotzi batek proposatu zuen droga-mendekotasun azaroak zituzten

Interviene a continuación la señora Garate quien afirma que la creación de huertos ecológicos no es nuevo en este ayuntamiento pues hace muchos años un concejal de Herri Batasuna propuso que se hicieran huertos de este tipo con

pertsonentzat halako ortuak egitea helburu terapeutikoekin, eta ez zirela egin Udalak ez zuelako egokitzat jo, baina zinegotzi hark egin zituela eta oso emaitza onak eman zituztela.

finalidades terapéuticas para personas con problemas de drogodependencia, y que no se hicieron porque el ayuntamiento no lo considero oportuno, pero él sí que lo llevo a cabo, y dieron muy buenos resultados.

Gauzak aldatu egin dira, jarraitu du, eta une hauetan erakundeek gehiago begiratzen diote ingurumenaren eta jasangarritasunaren alderdiari.

Las cosas han cambiado, prosigue, y en estos momentos las instituciones miran más al aspecto medioambiental y de sostenibilidad.

Gaineratu du bere taldeak proposatuko lukeela esperientzia pilotu bat izatea ikusteko ea ondo ateratzen den, eta, geroago, ereduan sakontzea eta egiteko modurik ordenatuenean.

Añade que su grupo propondría que esto fuera más bien una experiencia piloto para ver si resulta y a posteriori, profundizar en el modelo y la forma más ordenada de hacerlo.

Adierazi du proposatzen dutela, halaber, ingurumen saila izatea gaia hartu eta ortuak jartzeko lekuak topatuz aurrera eramaten duena , eta haien erabilera-araudia onartzen duena.

Afirma así mismo que también proponen que sea medioambiente el que coja el tema y lo lleve a cabo localizando los lugares donde sea posible instalar los huertos y a su vez aprobar un reglamento de uso.

Garate andreak dio “Baratzeko gune” izeneko sare bat dagoela Kutxak sortua, Gipuzkoako hainbat udaletan funtzionatzen ari dena, eta aukera hori ere aztertu beharko litzatekeela.

Ha sabido, continua, que hay una red creada por Kutxa de “Baratzeko gune” que está funcionado en bastantes ayuntamientos de Gipuzkoa y que habría que también estudiar esta posibilidad.

Amaitzeko esan du, aipatutako lekuari dagokionez, bere taldeak ere uste duela Udalak ezin duela leku hori orain dagoen moduan eduki —ortu ekologikoak egin edo ez egin—, eta mozioaren aldeko botoa emango dutela.

Finaliza afirmando que en cuanto al lugar mencionado, también su grupo considera que un ayuntamiento no puede permitirse el tener un lugar en las condiciones en que está, se vayan a hacer huertos ecológicos o no, y que van a votar a favor de la moción.

Alkate jaunak hartu du hitza; adierazi du ortu horiek ekologikoak ingurumen-baratzak edo hiri-ortuak izan daitezkeela, baina ludikoak direla denak; ludikoak ez badira, jarduera ekonomikoa baitira.

Interviene el señor Alcalde quien afirma que estos huertos podrán ser ecológicos, medioambientales, o urbanos, pero que son lúdicos ya que si no son lúdicos, son actividad económica.

Jarraian Iraola jaunak hartu du hitza esanez bere taldea hiri-ortuak egitearen alde dagoela, baina ez dagoela ados mozioan jasotako kokalekuarekin, eta uste dutela mozioaren kontra bozkatu beharko litzatekeela.

Interviene a continuación el señor Iraola quien afirma que su grupo está a favor de desarrollar los huertos urbanos, si bien no están de acuerdo con la ubicación recogida en la moción y entiende que se debería de votar en contra de la moción.

Gobernu-taldea eta Ingurumen saila, jarraitu du, lanean ari dira, Sakunen berdegune bat sortzeko 2015-2019ko programan adierazten den bezala, hiri-ortuak egiteko asmoa jasotzen zuena.

El equipo de gobierno y el área de medioambiente, continúa, ya están trabajando tal y como se recogía en el programa de 2015-2019 de creación de una zona verde en el Sakun que incluía la generación de huertos urbanos.

Gaineratu du Ingurumena lanean ari dela bai hiri-ortu horiek bai eskola-ortuak —arrakasta handia izaten ari direnak— garatzeko; eta, hala, 2017an San Andres eta Urkizuko eskola-ortuak sortu, eta 2018an Amañako ortuan hobekuntzak egin zirela.

Añade que Medioambiente está trabajando en el desarrollo de tanto estos huertos urbanos, como otros, como son los huertos escolares que están teniendo bastante éxito; y que así, en 2017 se crearon los huertos escolares de San Andrés y de Urkizu y en el 2018 se han realizado mejoras en el huerto de Amaña.

Jarraitu du esaten iazko maiatzean, Ingurumen batzordean, lan bat aurkeztu zela non hiri-ortuak jartzeko moduko hogeita hamar udal partzelaren zerrenda jasotzen zen, nahiz eta gero baztertu egin

Continua diciendo que en mayo del año pasado, en la comisión de medioambiente, se presentó un trabajo que recogía un listado de treinta parcelas municipales donde se podrían

ziren bai kokapenagatik, bai orientazioagatik, bai hiri-ortuaren baldintzak ez betetzeagatik.

instalar huertos urbanos, si bien luego se desecharon bien por la ubicación, bien por la orientación, o porque no cumplían los requisitos de huerto urbano.

Gaur egun, jarraitu du Iraola jaunak, Sakuneko ortu komunitarioaren 2016ko proiektua bultzatzen ari da: partzelak 6.000 metro koadro ditu eta 26 partzela izango lituzke 60 metro koadrokoak; leku bat ere egongo litzateke, lanabesak, aldagelak, takillak, komunak eta dutxak izango lituzkeenak.

A día de hoy, prosigue, se está impulsando el proyecto del año 2016 de huerto comunitario en Sakun, que se refiere a una parcela de 6.000 metros cuadrados para albergar 26 parcelas de unos 60 metros cuadrados, así como un edificio de aperos con vestuarios, taquillas, aseos y duchas.

Adierazi du ortu horretarako sarbidea alboetatik izango dela, eta ez dela baztertu den proiektua, baizik eta martxan jarraitzen duela, baina atzeratuta dagoela desjabetzea eskatuko lukeelako, eta horrek denbora eskatzen du.

Indica que el acceso a este huerto comunitario será por los laterales, y que no es un proyecto abandonado, sino que sigue en marcha, pero que está retrasado porque requeriría de la expropiación, lo cual lleva su tiempo.

Aurkeztutako mozioari dagokionez, uste du hor jasotako kokapena ez dela egokiena, bere ezaugarriengatik nahiko aldats handia du-eta; udal teknikariek kalkulatu dute ehun metroan 207 kotatik 255 kotaraino igotzen dela, hau da,% 48ko pendiza.

Respecto a la moción presentada, continúa en su intervención, entiende que la ubicación recogida no es la más adecuada, pues por sus características tiene una pendiente bastante pronunciada, que los técnicos municipales han calculado que en cien metros se asciende desde la cota 207 hasta la cota 255, lo que supone una pendiente del 48%.

Bestalde, gaineratu du partzela hori dohaintzaren bidez jaso zela eta adierazten zenez oso partzela aberatsa zela espezie autoktonoetan, haritzean, gaztainondoetan, pago eta urkietan.

Por otra parte, añade, es una parcela cuya adquisición mediante donación se justificó en que era una parcela rica en especies autóctonas, en roble, en castaño, hayas y abedules.

Mozioaren 2. eta 3. atalei dagokienez,

En lo que respecta a los puntos 2 y 3 de

amaitu du, Ingurumeneko teknikariak ezagutzen du ortu horien funtzionamendua: adjudikazioa publikoa izan beharko da, eta joakera-kode bat onartu beharko da.

la moción, finaliza, el Técnico de medioambiente conoce el funcionamiento de estos huertos, y la adjudicación tendrá que ser pública y habrá que aceptar un código de comportamiento.

Aguirre andreak dio ez duela zerikusirik Sakuneko ezpondak proposatzen ari denarekin; goiko aldea dela eta ez baso ingurua, zeina erabat abandonatuta baitago, arbolak bata bestearen gainean eta sekula ez dela garbitu.

Afirma la señora Aguirre que no tiene nada que ver le talud del Sakun con lo que se está proponiendo, que es en la zona de arriba y no en la zona del bosque, el cual está totalmente abandonado, con unos árboles encima de otros y que nunca se ha limpiado.

Gaineratu du irisgarritasuna ziurtatua dagoela Arratebidetik eta Mirafloresera doan errepidetik.

Añade que la accesibilidad está asegurada desde la carretera de Arrate y desde la carretera que va a Milaflores.

Amaitu du esanez Sakun martxan badago aukera onena irizten diola eta onartuko lukeela amore ematea asmo honetan; baina pena handia ematen diola, uste duelako oso aukera interesgarria dela Udalarentzat; baina ebidentzia ukatzen bada, berak etsi egin beharko duela.

Finaliza afirmando que si el Sakun está en marcha y parece la mejor opción, aceptaría el ceder que esto no se lleve a cabo; pero que le da mucha pena porque cree que es una opción muy interesante para el ayuntamiento, pero que si se niega la evidencia ella se tiene que plegar.

Alkate jaunak galdetu dio Aguirre andreari ea ezagutzen duen Sakuneko proiektua. Aguirre andreak dio ez zaiola inoiz egitasmoa eman, eta Iraola jaunak hori egin zezakeela mozioa aurkeztu behar zela jakinda.

Pregunta el señor Alcalde a la señora Aguirre si conoce el proyecto del Sakun, constatando la señora Aguirre que nunca se le ha facilitado el proyecto, lo cual lo podría haber hecho el señor Iraola al saber que se iba a abordar la moción.

Iraola jaunak dio hitz egin duela hainbat aldiz Aguirre andrearekin hiri-ortuei buruz, eta agian zuzenena alderantzizko bidea egitea litzatekeela; alegia, hiri-ortuei buruzko mozio bat aurkeztu aurretik galdetu beharko liokeela gobernu-taldeari zer egiten ari den arlo horretan, ingurumenean ez baitago inolako arazorik Aguirre andreak beharrezkotzat jotzen duenaz hitz egiteko.

Afirma el señor Iraola que ha hablado sobre los huertos urbanos en varias ocasiones con la señora Aguirre y que quizá lo correcto sería hacer el recorrido inverso de que antes de presentar una moción sobre los huertos urbanos se pregunte qué es lo que el equipo de gobierno está haciendo sobre el particular, ya que en medioambiente no hay ningún problema en abordar lo que la señora Aguirre considere oportuno.

Aguirre andreak adierazi du mugimenduren bat edo proiekturen bat baldin badago, ingurumenean aztertu beharko zela.

Indica la señora Aguirre que si hay algún movimiento o algún proyecto, se tendrían que haber estudiado en medioambiente.

Galdetu zaio Aguirre andreari ea mozioa mantentzen duen eta erantzun du baietz.

Se pregunta a la señora Aguirre si mantiene la moción, contestando la misma que sí.

Galdetu zaio, halaber, ea bozketa blokeka onartuko lukeen, eta erantzun du baietz.

Se le pregunta también si aceptaría la votación por bloques, contestando que acepta.

Alkate jaunak dio mozioaren kontrako botoa emango duela Iraola jaunak emandako azalpenengatik, baina 2. eta 3. puntuak mozioak jasotzen duen bezala kudeatuko direla, edo egokien jotzen den

Afirma el señor Alcalde que su grupo votará en contra de la moción por las explicaciones dadas por el señor Iraola, pero el punto 2 y 3 se gestionarán como recogen los puntos de la moción, o

bezala, dagokion unean.

como se considere, cuando toque.

Mozioaren lehen puntua bozkatu da eta ez da onartu emaitza honekin:

Sometido a votación el punto primero de la moción, no se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (5): Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos afirmativos (5): Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ezezko botoak (10): Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos negativos (10): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE).

Abstentzioak (5): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Abstenciones (5): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Mozioaren 2. eta 3. puntuak bozkatu dira eta honako emaitza hau izan da:

Sometidos a votación los puntos 2 y 3 de la moción, se dá el siguiente resultado:

Baiezko botoak (10): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga,

Votos afirmativos (10): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate

Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ezezko botoak (10): Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos negativos (10): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago abstentziorik.

Abstenciones: ninguna.

Berdinketa bat egonik, berriz ere egin da bozketa eta hauexek izan dira emaitzak:

Producido un empate, se vuelve a repetir la votación, con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (10): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos afirmativos (10): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ezezko botoak (10): Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos negativos (10): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago abstentziorik.

Abstenciones: ninguna.

Ondorioz, alkate jaunaren kalitatezko botoa dela-eta, ez dira puntuak onartu.

En consecuencia, por el voto de calidad del señor Alcalde, no quedan aprobados los puntos.

6. ATALA Irabazi taldeak aurkeztu duen mozioa eraikinen ikuskaritza teknikoek eskainitako informazioa aprobetxatzeko.

PUNTO 6º Moción presentada por el grupo Irabazi relativa al aprovechamiento de la información ofrecida por las inspecciones técnicas de los edificios (ITEs).

Testu hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente texto:

"María Jesús Aguirre Uncetak, Irabazi Eibar taldeko bozeramaleak, mozioa aurkezten du, Udalbatzak eztabaida dezan. Eraikinen ikuskaritza teknikoek eskainitako informazioa aprobetxatzea. EITak.

"María Jesús Aguirre Unceta, portavoz del grupo político Irabazi-Ganemos Eibar presenta para ser debatido en el próximo Pleno Ordinario la siguiente Moción: Aprovechamiento de la información ofrecida por las inspecciones técnicas de los edificios: ITEs.

ZIOAK:

JUSTIFICACIÓN

241/2012 Dekretuaren arabera, "Eraikinen Azterketa Teknikoa erreminta beharrezko eta funtsezkoa da dauden eraikinen segurtasun-, bizigarritasun- eta erosotasun-baldintzak hobeto ezagutzeko" eta "ondorioz, jarduera-ildo horren garapenerako, Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Hitzarmen Sozialean

Según el Decreto 241/2012 "la Inspección Técnica de Edificios se configura como una herramienta necesaria y fundamental instrumento de ayuda para profundizar en el conocimiento de las condiciones de seguridad, habitabilidad y confort de los edificios existentes" y que " como

aurreikusitako ekintzen artean, zehazten da EIT agiria gestio-tresna bat bihurtu behar dela eraikinen eraikuntza-kalitatea kudeatzeko eta sustatzeko, eta baita diru-laguntzen eta laguntzen programa dinamizatzeko eta bultzatzeko ere".

consecuencia, para el desarrollo de esta línea de actuación, entre las acciones previstas en el Pacto Social por la Vivienda de Euskadi, se concreta convertir la ITE en instrumento de gestión y fomento de la calidad constructiva del parque edificado y en elemento dinamizador e incentivador del programa de subvenciones y ayudas".

Bestalde, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, EITren figura sartu zuen, egun 3/2015 Etxebizitzari buruzko Legean arautua, non udalei eginkizun garrantzitsua esleitzen dien, jabeek beren ondasunak legeak eskatu bezain seguru, osasungarri, irisgarri eta apain izateko duten betebeharra betetzeari dagokionez, hala nola hobetzeko eta birgaitzeko lanak egiteari dagokionez.

Por otro lado, la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo incorporó la figura de la ITE, hoy regulada en la Ley 3/2015 de vivienda, donde se atribuye a los ayuntamientos un papel importante en lo relativo al cumplimiento del deber que tienen las personas propietarias de mantener sus propiedades en condiciones de seguridad, accesibilidad y ornato legalmente exigibles, así como de realizar los trabajos de mejora que sean necesarios.

Horrela, Eibarren eraikitako etxebizitzen multzoaren adina —berrogeita hamar urtetik gorakoa— eta ezaugarriak kontuan hartuta, eta azterketa teknikoen emaitzak Udalean aurkeztu behar direnez, txosten zehatz bat egin beharko litzateke 1968. urtea baino lehen eraikitako etxebizitzen multzoaren inguruan, ebaluazio eta guzti, azalduz zein diren patologia eta gabezia ohikoenak eraikitako urteen eta tipologiaren arabera.

De este modo, teniendo en cuenta la edad y las características del parque edificado de viviendas en Eibar, de más de cincuenta años y ya que los resultados de la inspección técnica deben presentarse en el Ayuntamiento, se debería realizar un informe detallado sobre el estado general del parque edificado anterior a 1968, con la evaluación correspondiente, especificando las patologías y carencias más habituales según sus años de construcción y tipología.

Horrek guztiak, halaber, balio lezake

Todo ello podría servir, a su vez, para la

zabalkunderako material bat erredaktatzeko patologia edo tipologia bakoitzarentzako neurri espezifikoak aplikatu ahal izateko; gainera, Udalak neurri zehatzak har litzake eraikinak zaharberritzeko eta hobetzeko, hedatuen dauden gabezietarako edo jabeentzat kostu larregizkoa duten konponketetarako.

redacción de material divulgativo de aplicación de mejoras específicas de reparación para cada patología o tipología, además de para la creación de medidas específicas municipales de fomento de la rehabilitación y mejora de los edificios para aquellos defectos más extendidos o desproporcionados en coste para sus propietarias y propietarios.

Hasieran eskatutako segurtasun-, irisgarritasun-eta apaingarritasun-baldintzei (zimentazioa, fatxadak, estalkiak, egiturazko segurtasuna, ur-hornidurarako egiturak…) geroago irisgarritasunari eta eraginkortasun energetikoko ziurtagiriari buruzko baldintzak gehitu zaizkie, etxebizitzaren ikuspegi osoago bat izateko, eraikinaren birgaitze-plan batekin, beharrezkoa balitz.

A los primeros requisitos de seguridad, accesibilidad y ornato exigibles en su comienzo, (cimentación, fachadas, cubiertas, seguridad estructural, estructuras de abastecimiento de agua…) se han añadido más tarde los requisitos sobre accesibilidad y certificado de eficiencia energética, para obtener una visión completa del estado de la vivienda, con un plan de rehabilitación del edificio, si fuera necesario.

Horregatik guztiagatik,

Por todo ello,

MOZIOA

MOCIÓN

Eibarko Udal Batzarrak Gobernu-taldea hertsatzen du Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egitera, EIT agiriek eskainitako ezagutza aprobetxatu eta sistematizatzeko, honako hauek egin ditzan:

El Pleno de Ayuntamiento de Eibar insta al Equipo de Gobierno a colaborar con el Gobierno Vasco para aprovechar y sistematizar el conocimiento ofrecido por las ITEs registradas para:

1) Eibarko 50 urtetik gorako etxebizitzen multzoaren egoera sakon ebaluatu, patologia ohikoenen ezaugarriak zein diren zehazteko.

1) Evaluar en profundidad el estado del parque edificado de viviendas en Eibar, de más de 50 años, con el objetivo de caracterizar las patologías constructivas más frecuentes.

2) Etxebizitzen eraberritze-ekintzei eta eraikuntza-kalitatearen hobekuntza-jarduerei dagokienez, zabalkunde-neurriak aurrera eraman, jabeentzako eredu edo gida gisa balio dezaten.

2) Llevar a cabo medidas de difusión respecto a las actuaciones exigidas de rehabilitación y mejora de la calidad constructiva de los edificios, que sirvan de modelo o guía para las propietarias y propietarios de viviendas.

3) Laguntzen eta diru-laguntzen programetan politika publikoak berbideratu, eraikitako eta ikuskatutako etxebizitza-multzoaren benetako premietara egokitu daitezen, eta eraikinak hobetzeko elementu dinamizatzaile gisa balio izan dezaten.

3) Reorientar las políticas públicas en los programas de ayudas y subvenciones para que puedan adecuarse a las necesidades reales del parque edificado ya inspeccionado y servir como elemento dinamizador de su mejora.

4) Gobernuaren ardura izanik eta baita neurri eredugarria ere, 1968 baino lehenagoko udal eraikinen egoerari buruzko informazioa eman herritarrei, azterketa teknikoa oraindik egin ez dutenek —2018ko ekainaren 26ko dataz— egin dezaten.”

4) Informar también a la ciudadanía del estado de los edificios municipales anteriores a 1968 como responsabilidad de gobierno y como medida ejemplarizante para impulsar esta inspección técnica a los que a fecha del Pleno, 26 de junio de 2018 (penúltimo día de presentación de certificaciones) todavía no lo hayan realizado.”

Lehenik Aguirre andreak hartu du hitza; esan du bihar amaitzen dela epea eta, dakienez, bakarrik etxebizitzen % 25ek edo 30ek egiten dutela EIT azterketa;

Interviene en primer lugar la señora Aguirre quien afirma que mañana acaba el plazo y que, por lo que sabe, solamente el 25% o el 30% de las

hortaz, arau hau —zeina bost urtez atzeratu zen eta zeinaren fiskalizazioa udalaren eginkizuna den— ez da betetzen ari.

viviendas han realzado la ITE; por lo que hay una dejación en el cumplimiento de esta norma que se prorrogó además cinco años y sobre la que el ayuntamiento tiene la labor de fiscalización de su cumplimiento.

Orain arte hirigintzaren diru-laguntzak igogailu eta fatxadetarako izan dira, eta ondo iruditzen zaio, baina bere taldeak uste du aztertu egin behar direla eraikinetan errepikatzen diren patologiak, hala nola termitak, habeak, egurrezko egiturak, eta hori guztia diru-laguntzei begira, zeren inbertsio horiek garestiagoak baitira egiturazkoak direlako.

Hasta ahora, añade, las subvenciones de urbanismo han sido para ascensores y fachadas, lo cual le parece loable, pero su grupo considera que hay que analizar las patologías en los edificios que son reiterativas como las termitas, las vigas, las estructuras de madera, todo ello de cara a una posible subvención que ayudará para estas inversiones que son mucho más costosas porque son actuaciones estructurales.

Amaitu du esanez bihar epea amaitzen dela baliatuta, bere taldeak eskatzen diola gobernu-taldeari benetan hartzeko EITak eta azterketa bat egiteko, 1968a baino lehenagoko eraikinen arazo oinarrizkoenak zein diren jakitearren.

Finaliza afirmando que aprovechando que mañana acaba el plazo, su grupo solicita al equipo de gobierno que se tomen en serio los informes de las ITEs y haga un estudio para saber dónde están los problemas fundamentales de las edificaciones anteriores a 1968.

Jarraian Mendicute jaunak hartu du hitza; esan du 2011n diagnostiko bat egin zela Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen zaharberritze-premien inguruan, eta diagnostiko horretan antzematen dela eraikinak eraberritu egin behar direla honako auzo hauetan: Mogel, Amaña, Legarre, San Kristobal, Urki, Txonta, Arragueta, Jardiñeta, Matxaria eta

Interviene a continuación el señor Mendicute quien afirma que en año 2011 se hizo un diagnóstico sobre las necesidades de rehabilitación de los edificios de la Comunidad Autónoma Vasca y que en este diagnóstico se aprecia que en los siguientes barrios las casas se tienen que rehabilitar: Mogel, Amaña, Legarre, San Kristobal, Urki,

Murrategi. Auzo gehienak ekialdean daudela eta horregatik bere taldeak duela urte batzuk Ekialdeko eraikinen eraberritze-proiektu bat planteatu zuela, Plan Estrategikoaren proposamen bat jasoz.

Txonta, Arragueta, Jardiñeta, Matxaria y Murrategi, Que la mayoría de las zonas están situadas en la zona Este y que fue por ello por lo que su grupo planteó hace varios años efectuar un proyecto de rehabilitación de las construcciones de la zona Este, recogiendo una propuesta del Plan Estratégico.

Aurrerago dio Eibarko etxeak zaharrak direla, eta kuriosoa dela zeren ez baitago alde zaharrik, baina etxebizitzak zaharrak dira; % 54 1960. urtea baino lehenagoko etxebizitzak dira, eta etxebizitzaren batezbesteko adina 55 urtekoa da, Debababerreneko tasarik altuena.

Gainera, jarraitu du, datu kezkagarri asko daude, esaterako, etxebizitza horien % 27k berokuntza-instalaziorik ez izatea, edo % 3k ur korronte publikorik ez izatea.

Dice más adelante que las casas de Eibar en efecto son viejas, y que es curioso porque no se tiene parte vieja, pero las viviendas son viejas; el 54% son viviendas de antes de 1960 y la edad media de la vivienda de Eibar es de 55 años, la tasa más alta de Debabarrena.

Además, prosigue, muchos de los datos son preocupantes como que el 27% de esas viviendas no tengan instalación de calefacción, o que el 3% de esas viviendas no tengan agua corriente pública.

Gaineratu du datu horiek alderatu behar direla kezkagarriak diren beste datu batzuekin, esaterako, zenbat etxe dauden hutsik; eta logikoa da, kontuan hartuta etxebizitza horietako askotan inbertsio handiak egin behar direla.

Añade que estos datos hay que contrastarlos con otros que también son preocupantes, como es el elevado número de viviendas vacías; lo cual es lógico, teniendo en cuenta que muchas de esas viviendas requieren de fuertes inversiones para poder ser habitadas.

Udalak, jarraitu du, erronka handia dauka hiri-inguruneko ingurumenaren eta paisaiaren degradazioaren aurrean, baita eraikinen zaharkitzearen aurrean ere; alegia, etxebizitza zein haren ingurunea hobetzeko erronka.

El ayuntamiento, continua, tiene un reto importante de degradación ambiental, degradación paisajística y funcional del entorno urbano, incluyendo la obsolescencia y el envejecimiento del parque edificado; el reto de mejorar

tanto la vivienda, como su entorno.

Udal honek, gaineratu du, jarduera-lerro bat izan behar du auzo degradatuetako eraberritze integralaren ildoan.

Este ayuntamiento, añade, debe de tener una línea de actuación en la línea de rehabilitación integral de barrios desfavorecidos.

Jarraitu du esaten Moguelen lan egin dela, Txontan lan egiten ari dela, nahiz eta lan handia egin beharko den urte luzeetako arazoari buelta emateko; baina gainerako guneetan ez dela ahalegin larregirik egiten ari.

Prosigue afirmando que en Moguel se ha trabajado, en Txonta se está trabajando, aunque hay mucho trabajo por delante para dar la vuelta al desaguisado de muchos años; pero que en las demás zonas no se está trabajando con la suficiente enjundia.

Jarraitu du esaten Txontan eraberritze-lerroa eta berroneratze-lerroa lantzen ari direla, eta uste dute antzeko mekanismoak jarri behar direla martxan beste gune batzuek ere berroneratze bat erreklamatzen dutelako.

Prosigue diciendo que en Txonta se trabaja la línea de la rehabilitación y la línea de la regeneración, y que consideran que hay que activar mecanismos de trabajo similares en otras zonas que están reclamando desde hace años una regeneración.

Nahiz eta aspalditik dagoen irisgarritasun-lerro bat, kontuan hartu behar da orain dela zazpi urte, etxebizitzen % 70 ez zela irisgarria; eta hori guztia erronka handia da, Eibarko biztanleria zaharra baita, eta 75 urtetik gorako pertsonak Autonomia Erkiegokoan baino % 23 portzentaje handiagoan.

Aunque hace años que se sigue una línea de accesibilidad, añade, es de tener en cuenta que hace siete años, el 70% de las viviendas no eran accesibles; y todo esto es un reto importante porque la población de Eibar está envejecida, con personas mayores de 75 años en un porcentaje 23% superior al de la Comunidad Autónoma.

Mendikute jaunak dio bere taldeak proposatzen duena eraikinen eraberritze eta auzoen berroneratze plan bat dela, epe luzerako bisio integral batekin, etxe seguruagoak, eraginkorragoak,

Continúa diciendo que lo que su grupo propone es un Plan de rehabilitación de edificios y de regeneración de barrios con una visión integral a largo plazo que ofrezca casas más seguras, más

irisgarriagoak eta leku atseginagoetan daudenak eskainiko dituena.

Amaitu du esaten prozesu hau, etxebizitzen eraberritzearekin, urrats egokia iruditzen zaiela eta ezinbesteko erreminta bat dela berrogeita hamar urte baino gehiagoko etxebizitzen egoera ebaluatzeko; eta EITen bidez, Udalak informazio ugari duela eta informazio horrekin estrategia politikoa ezar daitekeela.

eficientes, más accesibles y en zonas más agradables y con una movilidad sostenible.

Concluye diciendo que este proceso con la rehabilitación de las viviendas les parece un paso correcto y que para evaluar el estado de las viviendas de más de cincuenta años es una herramienta necesaria; y que por medio de las ITs, el Ayuntamiento dispone de mucha información y con esa información se puede fijar la estrategia política.

Jarraian Iraola jaunak hartu du hitza; hasi da esaten mozioaren edukia Eusko Jaurlaritzak egin beharreko zerbait izan beharko litzatekeela, Udala dagokiona betetzen ari baita.

Diru-laguntzen programak eraikinen benetako premietara egokitu ahal izateari dagokionez, igogailuak jarri eta berritzeko eta fatxadak zaharberritzeko diru-laguntzen deialdian, eta, zehatzago 2018koan, zera jasotzen da: "igogailuak jarri eta berritzeko eta fatxadak zaharberritzeko diru-laguntzak jaso nahi dituzten jabeen eraikinek EIT eginda izan beharko dute eskaera egin aurretik, eraikinaren antzinatasuna gorabehera"; hortaz, betetzen ari da jarraibide hori.

A continuación interviene el señor Iraola quien comienza diciendo que el contenido de la moción debería de ser algo a realizar por el Gobierno Vasco, ya que el Ayuntamiento está cumpliendo con lo que le corresponde.

En lo que se refiere al punto de la reorientación de los programas de ayudas y subvenciones para que puedan adecuarse a las necesidades reales del parque edificado, continúa, en la convocatoria de ayudas para instalación y sustitución de ascensores y rehabilitación de fachadas, y en concreto en la del 2018, se recoge que “los edificios cuyos propietarios pretendan acogerse a las subvenciones para instalación y renovación de ascensores y rehabilitación de fachadas, deberán de haber realizado la ITE con anterioridad a

la petición, independientemente de la antigüedad del edificio"; por lo que ya se da esa reorientación.

Aurrerago dio eraikinen egoera ebaluatzea eta zabalkunde-neurriak aurrera eramatea Eusko Jaurlaritzari dagokiola; ezin da ahaztu Udalaren bitartekoak mugatuak direla eta ezin direla eginkizunak bikoiztu, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak bere webgunean informazio ugari du.

Dice más adelante que a quien corresponde, y de hecho lo hace, evaluar el estado del parque de viviendas y llevar a cabo medidas de difusión, es al Gobierno Vasco; sin olvidar que los medios del Ayuntamiento son limitados como para duplicar tareas, así como que el Gobierno Vasco a través de su página da una información detallada.

Bestetik, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak jakitera eman du zein den eraberritze-politikaren ebaluazio-txostena 2017an.

Añade que por otra parte, el Observatorio Vasco de la Vivienda da a conocer el informe de evaluación de la política de rehabilitación en Euskadi 2017.

Herritarrei informazioa emateko laugarren puntuari dagokionez, argitu behar da indarraldiko araudiaren arabera, EIT bakarrik aplikatzen zaiela nagusiki bizitegi erabilera duten eraikinei, hortaz, udal eraikin gehienak ez daude sartuta.

En lo que se refiere al cuarto punto de informar a la ciudadanía, prosigue con su intervención, hay que aclarar que de conformidad con la normativa en vigor, la normativa de la ITE sólo es aplicable a aquellos edificios de uso mayoritariamente residencial, por lo que la mayoría de los edificios municipales no estarían incluidos.

Aurrerago dio Udala EITko txostenak jasotzen ari dela, eta bihartik aurrera ere aurkeztu ahalko direla; baina ez dela ahaztu behar txosten horiek jabekideen komunitateen ardura direla, eta Udalaren eginkizuna dela komunitateei errekerimendua egitea, patologiak konpontzeko epe ba ematea, eta, bete

Señala más adelante que el ayuntamiento está recogiendo los informes de IT, y que los mismos se podrán seguir presentando a partir de mañana; pero que no hay que olvidar que estos informes son a cargo de las comunidades de propietarios y que por parte de del Ayuntamiento se requiere a

ezean, zigorrak dituztela ohartaraztea.

las comunidades y se les da un plazo de subsanación de las patologías, y caso de incumplimiento, están sujetas a penalizaciones.

Amaitu du esanez uste duela Udalak eta Eusko Jaurlaritzak konpromiso bat dutela hiri-berroneratzearen inguruan, eta Mendicute jaunak aipatutako txostena garai hartan Etxebizitza Kontseilari zen Iñaki Arriola jaunak bultzatutako txosten bat dela, eta Mogel eta Txontako berroneratzeak ere Arriolak sustatu dituela.

Finaliza afirmando que cree que por parte del Ayuntamiento y del Gobierno Vasco existe un compromiso en lo que se refiere a la regeneración urbana y que el informe indicado por el señor Mendicute es un informe auspiciado por el entonces Consejero de Vivienda D. Iñaki Arriola, y que las regeneraciones de Mogel y de Txonta también han venido auspiciadas por el mismo Sr. Arriola.

